

**KULTURA, KIROL ETA AISIAREN EREMUETAN  
OHIKO DIRU-LAGUNTZAK EMATEKO DEIALDIA,  
2010eko EKITALDIRAKO**

**1. artikulua.- DEIALDIAREN XEDE ETA HELBURUA:**

Deialdi honen helburua kultur, kirol eta aisia jarduerak sustatzeko ohiko diru-laguntzak ezartzea da; jarduerok Leioa udalerriko elkarteek egin beharko dituzte, eta honetatik kanpo geratuko dira, beren-beregi, eskolaz kanpoko jarduerak edo ikastetxeek antolatutakoak.

**2. artikulua.- ONURADUNAK:**

Edozein pertsona fisiko edo juridiko izan daiteke honen bitartez deitu diren ohiko diru-laguntzen subjektu onuraduna, helbide soziala edo kokapen iraunkorra Leioan badauka eta Leioako udalaren Elkartearen Udala Erregistroan inskribatuta badago. Halaber, Leioa udalerrirako interesgarria den kultur, kirol edo aisia jardueraren bat garatzeko asmoa izan beharko du, deialdi honetan azaldutako irizpideei eta Diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren 11. artikuluan azaldutakoari jarraituz.

**3. artikulua.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO LEKU ETA MODUA:**

- Eskabideak **Leioako udalaren Erregistro Nagusian** aurkeztu beharko dira edo, bestela, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan azaldutako lekuren batean.

- Honako agiri hauek erantsi beharko dira eskabidearekin batera:

- a) Diru-laguntzaren eskabide normalizatua (l. eranskina).
- b) Eskatzailearen NANaren fotokopia.
- c) Erakunde eskatzailearen estatutuen kopia.
- d) Eusko Jaurlaritzaren Elkarte eta Erakundearen Erregistroan izena emanda duela azaltzen duen ziurtagiria.
- e) Erakundearen IFKren fotokopia, erakunde juridikoa bada.
- f) Estatutuetan azaldutakoari jarraituz, erakundearen arduraduna den pertsonaren NANaren fotokopia.
- g) Diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduera edo gertakariaren proiektu xehatua. Horrek, gutxienez, proiektuaren azalpena bildu beharko du, baita zein bizilagun dituen xede, zein helburu lortu nahi den eta jarduerak Leioa udalerrirako dakarren interesa ere, jarduerok non eta noiz burutuko diren zehaztuz.
- h) Diru-laguntzak jasotzeko aurkeztu den jarduera edo proiektuarekin zerikusia duten jardueren memoria; bertan, eskatzaileak eskabidea egin aurreko urtean edo urteetan egindakoak zehaztuko dira.
- i) Eskabidea aurkeztu aurreko urteko sarrera eta gastuen balantzea, eta berau egin den urteko aurrekontua, diru-laguntza eskatzea eragin duen jarduera edo proiektuari dagokionez.
- j) 2010. urtean egin beharreko jardueren egitaraua, horiek egiteko epe eta egunak, metodologia, helburuen deskribapena eta xede dituen bizilagunen eremua zehaztuz.

- k) Halaber, eskatzaileak zerga-betebeharren ordainketa egunean duela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko da, dagokion Ogasunak egindakoa. Zergak Leioako udalari soilik ordaindu behar dizkioten elkarteek eskabidean erantsiko dute horixe azaltzen duen berariazko aitortpena. Udalak berak administrazioaren kabuz emango du aipatutako egiaztagiria.
- l) Eskatzaileak, indarreko legediaren arabera Gizarte Segurantzarekin behartze-harremana badu, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiak egindako ziurtagiriaren bidez egiaztatu beharko du Gizarte Segurantzarekiko obligazio guztiak egunean dituela.

Aurreko urtean antzeko udal diru-laguntza jaso duten eskatzaile guztiek, pertsona fisikoek edo juridikoek, ez dute zertan berriro aurkeztu aldaketarik izan ez duen agiririk, baina eskabidean hori argi adierazita egon beharko da.

Beste erakunde publikoren edo pribaturen batean jarduera berbererako diru-laguntza eskabiderik aurkeztu bada, Leioako udalean aurkeztzen den eskabidean berariaz aipatuta egongo da hori eta, gainera, aditzera emango da finantziazio eskabidea beste zein erakundetan aurkeztu den; eskaturiko edota jasotako zenbatekoa ere argi adierazi beharko da.

Udalak, kasu zehatz bakoitzari jaramon egiteko, beste dokumentu osagarri batzuk eskatu ahal izango dizkio eskatzaileari, aurkeztutako proiektua osorik baloratzeko egokitzat jotzen badu.

*Eskabideak baztertzea:*

Ez dira aintzat hartuko lehenago ere Leioako udalak emandako diru-laguntzen azalpen edota justifikazio memoria (agirien bidezkoa) aurkeztu ez duten erakundeek edo pertsonak egindako eskabideak.

*Eskabide osagabeak edo akastunak:*

Aurkezturiko eskabidea edo erantsitako dokumentazioa osagabeak izanez gero, edo zuzentzeko moduko beste akatsik edukiz gero, hori 10 laneguneko epean zuzentzeko eskabidea egingo zaio eskatzaileari, agindeia jakinarazi eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita; hori egin ezean, eskabidea baztertu egingo da.

- *Epea:* Hilabeteko epea egongo da eskabideak aurkezteko, deialdi hau udalaren iragarki-oholean eta udalaren hedabideetan argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskabideak adierazitako epeetatik kanpo aurkeztekotan, eskabideok atzera botako dira, artxibatuz, beste tramiterik egin behar izan gabe.

#### **4. artikulua.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA**

Honako hauek izango dira eskatzaileen artean banatuko diren gehieneko zenbatekoak:

- Kultura eta Aisialdia:  
22.090,40 euro, gastua 45070 4811500 aurrekontu-partidaren pentzura eginda.
- Kirolak:  
65.592 euro, gastua 47100 4811801 aurrekontu-partidaren pentzura eginda.

#### **5. artikulua.- EMATEKO PROZEDURA:**

Diru-laguntza hauek emateko prozedura lehiaketa izango da.

#### **6. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA EMATEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:**

1.- Aurkeztutako proiektuak balioztatzeko, jarraian zehaztutako faktoreak hartuko dira kontuan:

- a) Proposamena egin duen pertsonak edo erakundeak Leioa udalerrian duen garrantzia edota sustraia (eratu zen urtea, bazkide kopurua...).
- b) Eskatzaileak garaturiko jarduerak urteetan izandako jarraipena.
- c) Udal programak antolatzen lagundu izana.
- d) Udal jarduera eta programetan parte hartu izana.
- e) Jardueraren edo proiektuaren originaltasun eta egokiera, udalaren babespean egiten diren antzeko beste jarduera batzuei dagokienez.
- f) Proiektuak eskabidean adierazitako helburuetara eta xedeetara duen egokitasuna.
- g) Proiektuak Leioako kultur eta kirol ingurunean izango duen garrantzia.
- h) Nori zuzenduta dagoen.
- i) Bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa, jarduera garatzeko behar diren baliabideak eta udalak baliabide horiekiko duen erabilgarritasuna kontuan hartuta.
- j) Garaturiko jardueraren kostuak.
- k) Eskatzaileak berak baliabide ekonomikorik duen.
- l) Beste finantziario bide batzuk erabiltzeko zailtasuna edo beste erakunde batzuek emandako finantziarioaren urritasuna.
- m) Jarduera garatzeko egin den antolaketa mailako ahalegina, bai giza ikuspegitik eta bai egitura edota ekonomia ikuspegitik begiratuta.
- n) Alor bererako aurkeztu diren proiektuak eta horretarako dagoen kreditua.
- o) Jarduerak gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapenean duen eragina.
- p) Jarduera egitean EAEko hizkuntza ofizial biak erabiltzen diren.

2.- Proiektu bakoitza dagokion arlo edo sailak balioztatuko du, osorik. Horrek, hala ere, aholkua eskatu ahal izango die egokitzen jotzen dituen pertsona edo erakundeei.

4.- 300 €-ko diru-laguntza emateko aukera aztertu ahal izango da, sortu berri diren elkarten izena emateko gastuak ordaintzeko. Hurrengo urteetan, burutuko dituzten jardueren segimendua egingo da, eta horien arabera emango dira hurrengo diru-laguntzak.

## **7. artikulua.- BIDERATZEA ETA EBAZTEA:**

Alkatetza Dekretuaren bitartez ebatziko dira eskabideak, Kultura Arloko edo Kirol Arloko zuzendariak proposatutakoa kontuan hartuta eta Kultura, Kirol eta Gazteriako Informazio Batzordeak eta Tokiko Gobernu Batzarrak horri buruzko txostena egin ostean. Sei hilabeteko epea egongo da horretarako, deialdi hau argitaratzen denetik aurrera zenbatzen hasita.

10 eguneko epea egongo da interesdunei jakinarazteko, ebazpena ematen denetik aurrera zenbatzen hasita.

Epe hori igaro eta eskabideari buruzko berriazko ebazpenik azaldu ez bada, ukatu egin dela ulertu behar da, ondoren horri buruzko berriazko ebazpenik emateari kalterik eragin gabe.

### **8. artikulua.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK:**

Deialdi honetan azaldutako diru-laguntzen onuradunak diren pertsonak edo erakundeek honako betebeharrak izango dituzte:

- a) Kultura, kirol eta aisiaren eremuan diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren ezarritako arauak behar bezala betetzea, bai eta diru-laguntza emateko ebazpenean ezar daitezkeen baldintza bereziak ere.
- b) Emandako diru-laguntza onartzea. Zazpi eguneko epean, emakida jakinarazten denetik zenbatzen hasita, onuradunak diren pertsona edo erakundeek diru-laguntza berariaz eta idatziz ukatzen ez badute, onartu egin dutela ulertuko da.
- c) Eman zaion diru-laguntzari eskatzeko azaldu zen helburu zehatza ematea.
- d) Diru-laguntza jaso duen jarduera garatzeko beharrezko baimen guztiak lortzea.
- e) Indarreko araudia betetzea, jarduera eta ikuskizun publikoak antolatzeari dagokionez (Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 10eko 4/1995 Legea, ikuskizun publikoei eta jolas jarduerari buruzkoa, eta halako ikuskizunak arautzen dituen Udal Ordenantza), eta Estatuko nahiz Erkidegoko gainerako araudi aplikagarri guztiak ere betetzea, kasuan kasuko jarduketa eremuari dagokionez.
- f) Sustapeneko elementuetan eta diru-laguntza jaso duen jarduerarako lantzen diren karteletan, testuetan edo agirietan (EAEko bi hizkuntza ofizialetan argitaratu beharko direnak), Leioako udalaren Kultura, Kirol eta Gazteria Arloaren babesa aipatuko da; gainera, kartelak jartzeari buruzko udal araudia oso-osorik beteko da.
- g) Udalak eskaturiko laguntza guztia emango da, diru-laguntza jaso duten ikuskizunak edo jarduerak hobeto garatzeko. Eskaera horri ezetzik emanez gero, egindako eskabidea artxibatu egingo da, edo bestela, iraungi egingo da, eta emandako diru-laguntza itzuli beharko da; gainera, bidezko zehapen guztiak ezarri ahal izango dira.
- h) Helburu berbererako lortu diren gainerako diru-laguntza guztien berri ematea, horien jatorria publikoa edo pribatua izan arren, eta jasotako zenbatekoa argi adierazi beharko da.
- i) Azterlan, inkesta edo estatistikarik egin behar izatekotan, Leioako udalarekin aritzea lankidetzan, hori eskatzekotan.
- j) Udalak egingo dituen egiaztapen jarduerak onartzea.
- k) Emandako zenbatekoari eman zaion erabilera justifikatzea, Kultura, kirol eta aisiaren eremuan diru-laguntzak emateko modua arautzen duen udal ordenantzaren 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

### **9. artikulua.- LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA:**

1.- Diru-laguntza jaso duen jarduera amaitu ondoren, agirien bidezko justifikazioa egin beharko da, diru-laguntzari emandako erabilera zuzena egiaztatzeko.

2.- Horretarako, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Garatutako jardueraren memoria zehatza.
- b) Jarduerak eragindako diru-sarrera eta gastuen balantzea. Diruz lagundutako jarduera honetarako beste edozein laguntza edo diru-laguntza jaso bada, hemen azaldu beharko da, laguntza publikoa zein pribatua izan.
- c) Jardueraren ondorioz sorturiko gastuen jatorrizko ziurtagiriak, emandako zenbatekoaren kopuru osoraino. Ziurtagiri horiek fakturak edo frogarako baliozkoak diren beste

elementu batzuk izango dira, eta baliozkotasuna edukiko dute merkataritzako trafiko juridikoan.

Horrela bada, honakoak azaldu beharko dira fakturretan, nahitaez:

- Erakunde, Elkarte edo dena delakoaren identifikazio fiskala.
- Hornitzailearen identifikazioa.
- Fakturaren eguna
- Zerbitzua eragin duen jarduera.
- Zerbitzuaren deskribapena.

Honakoak ez dira frogagiri gisa onartuko:

- Administrazioako, antolaketako eta antzekoetako barruko kostuak.
- Ermandadeko bazkarien edo antzekoen kostuak.

- d) Diru-laguntza jaso duen jardueraren edo ikuskizunaren eraginez argitaraturiko edo editaturiko liburuxka, kartel, liburu, bideo, CD-Rom eta antzeko bakoitzaren ale bat. Horietan guztietan diruz lagundutako jarduera Leioako udalak babestu duela adierazi beharko da.

3.- 2010ko abenduaren 31n amaituko da justifikaziorako epea.

4.- Jarduera beste edozein erakunde publikoren edo pribaturen laguntzarekin finantzatu bada, justifikazioaren zatitza, fondo horien jatorria eta diru-laguntza jaso duten jardueretarako aplikazioa egiaztatu beharko da.

5.- Onuradunak aurkeztu dituen jatorrizko agiriak behar dituenean, fotokopia batekin batera emango dira; erkatu eta jatorrizko agiriak zigilatu eta onuradunari itzuliko zaizkio.

6.- Aurkezturiko justifikazio agiri guztien data diru-laguntza jaso duen ekitaldi ekonomikokoa izango da.

#### **10. artikulua.- DIRU-LAGUNTZA ITZULTZEA:**

1.- Ondorengo kasuetan jasotako laguntza Udal Kutxetara itzuli beharko da, diru-laguntza ordaindu zenetik itzuli behar dela erabaki arte dagozkien berandutze-interesekin:

- a) Emandako zenbatekoa eskabidean adierazitako helbururako ez erabiltzea.
- b) Diru-laguntza beharrezko baldintzak bete barik lortzea.
- c) Onuradunari egotz dakizkioken arrazoiak direla-eta, deialdi honetako 8. artikuluan azaldutako betebeharrak ez betetzea.
- d) Justifikazio egokia ez egitea, deialdi honetako 9. artikuluan ezarritakoaren arabera. Gastuaren justifikazio partziala eginez gero, justifikatu gabe gelditu den gastuaren zenbateko baliokidea itzuli beharko da.
- e) Gehiegizko finantziazioa izatea, jardueraren benetako kostuari dagokionez; kasu horretan soberakin osoa itzuli beharko da.
- f) Beste erakunde batzuen diru-laguntzekin batzean behar baino gehiagoko finantziazioa gertatuz gero, Leioako udalak emandako zenbatekoa itzuli beharko du onuradunak, finantzatutako kopuru osoaren gainean berak emandako kopuruaren arabera.
- g) Diru-laguntza emateko ebazpenean onuradunei ezartzen zaizkien baldintzak edo betebeharrak urratzea, jarduera edo proiektua egiteko moduari dagokionez. Kasu horretan, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko kontuan hartuko da ez-betetzeen larritasuna, zuzentasun eta proportzionaltasun abiaburuei jaramon eginda.

2.- Edonola ere, zati batean edo guztiz itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko, kontuan hartuko dira proportzionaltasun eta berdintasun abiaburuak. Horretarako, kasu zehatz bakoitzaren inguruabarrak aztertuko dira.

3.- Alkatetzak emango du laguntza itzultzeko agintzen duen ebazpena.

4.- Itzultzeko espedienteak Administrazio Publikoen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen VI. Tituluan ezarritako prozedurazko arauak bete beharko ditu. Espediente horren bidez entzunaldi tramitea emango zaio interesdunari, 15 laguneko epean.

5.- Diru-laguntza itzultzeko betebeharra dagoela egiaztatu eta gero, eskumena duen organoak betebehar hori adierazteko ebazpena emango du. Ebazpen hori zioduna izango da, eta bertan, itzulketa egin beharra eragin duen zioa adieraziko da berariaz; halaber, itzuli beharreko zenbatekoa eta horretarako epea ere adieraziko dira; azkenik, aditzera emango da itzulketa ezarritako epean egin ezean premiamendu bidera joko dela.